

INGURUMENA

Hiri eta Industria medio

Lurraldea Jasangarritasunaren arabera Kudeatzeari buruzko Ikuspegi Integrala



Topiko honen barruan, OIKOS eta EKO-LURRALDEA proiektuak daude. Bi hauek, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Planak finantzatzen lagunduta daude,




Saiotek eta Etortek programen barruan, hurrenez hurren. Lurraldearen kudeaketa jasangarriaren inguruan erabakiak hartzen lagunduko duen Sistema Integratu bat definitu

eta garatzea izan da OIKOSen helburua. EKO-LURRALDE Ikerketa Estrategikoaren Programa, berriz, epe luzerako antolatu da, eta ezagutza sortzea, oinarriak ezartzea eta lurraldearen kudeaketa jasangarriko beharrezkoak diren estrategia eta tresnen oinarriak ezarri eta garatzea du xede; hori guztia, gainera, goi-mailako prestakuntza, nazioarteko lankidetzeta eta emaitzen hedapenaren bitartez. Programa honen garapenean, TECNALIA eta Euskal Herriko Unibertsitateko 5 Sail elkarlanean ari dira.

Euskadiko airearen kalitatea hobetzeko planak

Azken urteotan egindako azterlan epidemiologikoez erakutsi dute, airearen kutsadurak gizakiaren osasunean eragin handia duela. MOEren datuen arabera, Espainian, 16.000 iristen dira hirietako airearen kalitate txarrak eragindako heriotza goiztiarrak, eta Europan berriz, 340.000era. TECNALIA, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean ari da Euskadiko 18

udalerritako Airearen Kalitatearen aldeko Ekintza Planak lantzen, tartean, udalerririk horietako Udalak direla. Aztertutako hainbat eskualdetan, airearen kalitatea okerrera egitera bultzatzen duten iturriak, industria, portuetako jarduera, eraikuntza eta beste jarduera batzuk direla uler badaiteke, egiaztatu da hirigune gehienetako arazo nagusi eta ohikoena ibilgailuen trafikoarena dela.



Ingurumen Zaintza

Ingurumenaren gaineko Eraginaren hainbat Deklaraziori jarraiki, energia ekoizten duten honako instalazio hauen inguruan, Ingurumena Zaintzeko Planak egiten ari dira: Bahía de Bizkaia Electricidad/Gas, Bizkaiko Planta de Valorización Energética de R.S.U (Zabalgarbi) eta Bizkaia Energía.

Kasuaren arabera, ondorengoak barne hartzen ditu Zaintzak: igorpenaren, immisioaren, isurketen eta meteorologiaren kontrola, edo airearen kalitate-irizpideak gainditzen diren egoerak aurreikusteko dispersio-ereduen ezarpena.


Industrial Liquid Effluents Network - ILE



Europako Batzordeak (VPM) finantzatu duen Industria Efluente Likidoi (ILE) buruzko gaikako sarea, 2002. urtearen amaieran abiarazi zen 4 urterako, TECNALIA eta IPM2-ren koordinaziopean. Industria-sektore ezberdinetako lau klusterretan esku hartzen duten 40 bazkidek osatzen dute, hau da: meatze-metalurgia, papera, gainazalen estaldura eta ehungintza. Partaideen artean, unibertsitateak, ikerketa-zentroak,

laborategiak eta aipatutako sektoreetako enpresak daude. Sarearen helburuetako bat, sareari nazioarteko maila ematea izan da. Horretarako, euren jardueretan IMSko beste eskualde batzuek esku hartu dute, hala nola, Japon, Kanada eta Australia, eta gainera, nazioarteko workshopak antolatu dituzte Suedia, Kanada, Espainia, Italia, Vietnam eta Korean

Hiri-hondakinak erraustean sortutako erraustsak plasmaren teknologiaren bidez beiraztatzea



CENIT programaren aurreneko deialdian onetsi zen OTERSU proiektua eta URBASERek zuzentzen du. TECNALIAk garatzen dituen jardueren helburu nagusia, hiri-hondakinak errausteko

labeetan sortzen diren erraustsak plasma termiko bidez tratatzen datza. Plasmaren teknologiak, oso tenperatura handiarekin eta atmosfera kontrolatu batean tratatzea ahalbidetzen du, eta

azkenean, beiratutako produktuak eta oxido-kontzentrazioak sortzen dira, baina kopuruak askoz txikiagoak dira, eta birziklatu ahal direnez, zabortegean gelditzen dena minimizatu egiten da

Garraio-azpiegituren zarata



Une honetan, garraioren sektore gehienetan, ingurumen akustikako proiektuak garatzen ari da LABEIN-TECNALIA, hots: portu, trenbide eta errepideetakoetan. INECO-TIFSArekin elkarlanean, aireportuetako instalazioen ingurumarietan dagoen ingurumen-zarata globala simulatzeko tresna bat garatzen ari da AENarentzat. Bestalde, Société Nationale des Chemins de Fer (SNCF) elkartearekin batera ari gara

lanean, trenaren zaratak pertsonengan duen eragina aztertzeko. Eta azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio Sailarekin, Trafikoaren Zarata Kudeatzeko Sistema bat definitu da. Honen bitartez, Bizkaiko errepideen eraginpean dauden eremuak identifikatu eta sailkatu dira, eta honako hau, Ekintza Planen oinarri gisa erabiliko da. Hiru hauek, gure sektorearen jarduera eta teknologia-eremuaren adibide dira.